


GUKA



FESTAZ
GOZATZERA DATOZ
PELLO ETA NIKOLASA

BARE

HORTZ KLINIKA

📍 Arrantzale 63, behe

☎ 943-29 06 19

639 44 52 34

📧 @bare.hortzklínika

🌐 www.bare.eus



- Implanteak
- Ortodontzia / Alineadoreak
- Odontopediatria (PADI)
- Odontologia biologikoa
- Odontologia estetikoa

*Ondo pasatu
jaiak!*

SLOW

ODONTOLOGIA



Iritzia
Onintza Lete Arrieta

Muxu bat sanikolasetan

Azkoitiarra izanda gertuago ditut Zumaiia, Getaria eta Zarautz. Gertuago, beraz, sanpedroak, salbato-reak eta Euskal Jaiak. Baina, nik, sanikolasak ditut festa gustukoenak. Betidanik iruditut izan zaizkit inguruetakoa erakargarrienak, hotz ikaragarriak pasatutakoak garen arren moila inguru horretan. Ekitaldi ugari festak dira, biziak, oroitzapen on asko uzten dituzten horietakoak. Gustukoen zer dudan pentsatzen hasi naiz, eta oharkabea, bi hamarkada egin ditut atzera. Izan ere, ez al zaizue iruditzen festetako egitarauak bezainbesteko garrantzia edo handiagoa izaten dutela ekitaldien bueltan edo horietatik kanpo jazotzen diren gertakariak eta bizipenak? Urteak

pasatu eta atzera begira jarritakoan, ez al gara bigarren horiez akordatzeko normalean?

Horixe gertatzen zait San Nikolas jaietako dudan oroitzapen politenetakoaz pentsatzean. 22 edo 23 urte izango nituen, eta gaueko ordu txikietan, hondartzako erdiko txiringitoan ginen lagun mina eta biok, gustura, dantza eta dantza, bizitza momentu huraxe zela sentituz. Erdi ilunpetan eta jendetzaren artean, kostako ondoko herriko mutil hura ikusi nuen halako batean, hura ere bere lagunekin. Ondo erortzen zitzaidan ezagun bat zen, eta dantzan gerturatu nintzaion, pozarren. Ez dakit minutu asko ala gutxi igaro ziren; halako batean, dantzan ari ginela, ezpainetan muxu bat eman zidan. Muxua eman

baino, lapurtu egin zidala esan beharko nuke, egiari zor. Eta azer ezusteko polita.

Nik gustuko nuen, baina ez nekien berak ere gogoko ninduenik. "Txokora joango al gaitun?" entzutea baino eraginkorragoa izan zen ezpain haiek sentitzea, eta kanpora

Ekitaldi ugari festak dira, biziak, oroitzapen on asko uzten dituzten horietakoak

Nik gustuko nuen, baina ez nekien berak ere gogoko ninduenik

abiatu ginen, Itxaspeko alda-pan gora. Eskarmentuagatik, ziurrenez, bazekien hondarretatik urruntzea zela onena halako kontuetarako.

Ez naiz hasiko ondoren gertatutakoaz xehetasunak ematen. Kontua da, handik urte batzuetara, berriro egin genuela topo, berriro sanikolasetan, eta gau hartakoaz oroitzen aritu ginela, ni nire lagunekin, bera bereekin. Taberna batzuetan elkarrekin ibili ginen, gustura eta morbo galantarekin. Gau hura ere elkar musukatuz amaitzea izango zatekeen politena, eta uste dut horixe pentsatu genuela uneren batean biok. Baina bizitzako beste momentu batean geunden, eta arantzatxo horrekin gelditu ginen. Ni bai, behintzat.

Gerora nire ezpaineak mu-

sukatu dituzte ezpain gehiago inguru horietan, eta bateren bat izan da aurreneko hura baino are bereziagoa, baina neguko festa zoragarri hauez oroitzean, ezin dut saihestu hondartzaz, Itxaspez eta kostako mutil hartaz akordatzeko. Ziur nago sanikolasak zuei ere sorrarazi dizkizuela antzeko oroitzapen bereziak, izan gustuko pertsona baten inguruak, lagunartekoak edo barrez leherrarazten gaituen pasarteren bati lotutakoak. Eta, oraindik gertatu ez bada, egon lasai, aurrean gertatuko da eta, zalantzarik ez izan...

Ondo pasatu sanikolasak, gozatu herriko taldeek mimoz prestatutako egitarauak, go-goan hartu eta barruan gorde jaien inguruko pasarte politenak eta, garrantzitsuena, bakean dagoena, bakean utzi!



**4****San Nikolas jaiak**Astelehena, 2025eko abenduaren 1a **GUKA**

Eki-lorea

belardenda

Mercedes Osorio Rocha

Dietetika eta nutrizioko goi-mailako teknikaria

17 urte zuekin! Eskerrik asko!

Sendagai naturalak, kosmetika naturala, oinetako ergonomikoak, elikadura ekologikoa, makrobiotika, diabetikoentzat, kirolarientzat, zeliakoentzat...

Beste zerbitzuak:**Maidor Pinto:****Garbiñe Iraola:****Eduñe Amenabar:****Martin Torrellas:**

Chakra. Oreka errituala.

Naturopatia, iridologia, homeopatia, nutrigenomika.

Biomagnetismo holistikoa: Imanen bidezko desblokeo fisiko energetikoa, gorputzaren PH-a alkalinizatzeko eta oreka fisikoa lortzeko.

Elikadura-intolerantziaren testa.

Eusko Gudari 5, Orio | 943-83 13 77 | ekiloreadenda@gmail.com | [f Eki Lorea Orio](#) | [@EkiLoreaorio](#)



«Mezua garbia da: zaindu plaza, zaindu laguna eta txintxo ibili»

Leire Iturralde eta Eneko Eizagirre Festa Batzordeko kideak

San Nikolas festak antolatzeke batzordearen bileretan parte hartu dute Leire Iturraldek eta Eneko Eizagirrek, eta aurtengo jaiez eta egitarauaz hitz egin dute.

Ate joka dira San Nikolas festak. Dena prest al duzue?

ENEKO EIZAGIRRE: Bai, dena prest dago. Hala ere, oraindik badago zer eginik, festa egunetan ezin baita geldirik egon.

LEIRE ITURRALDE: Guztia lotuta eta prest daukagu, eta gogotsu gaude dagoeneko.

Arrakasta handiko ekintzak izan ohi dira urtero, besteak beste, herri bazkaria, kontzertuak edota Pello eta Nikolasa erraldoien kalejirak. Aurten ere izango al dira egitarauaren barruan?

L.I.: Arrakasta duen guztia errepikatzen da egitarauan. Antolaketak lanetan aritzen den jendea ere gogotsu egon ohi da horrelako ekintzak berriro egitarauan txertatzeko. Ezin da ukatu Pello eta Nikolasa erraldoien kalejirek jendetza mugitzen dutela, eta, beraz, erraldoien kalejirak ezin dira kendu. Aurten, gainera, aurrera dezakegu aldaketekin datozela Pello eta Nikolasa. Azkenean, funtzionatzen duten formulak dira, eta beti erabili beharrekoak.

Horrelako ekintza jendetsuak izanda, beldurrik ematen al du aldaketak proposatzeak?

E.E.: Gauza edo ekitaldi berriak antolatzeak, noski, beldurra ematen duela, ez baitakizu zenbat pertsona azalduko diren ekintza berrira, ondo antolatuko al duzun... Baina, tira, urteetan antolakuntza taldean izan garenez, badakigu zerk funtziona dezakeen eta zerk ez.

L.I.: Gainera, zerbait ondo egiten badugu, festen ondorengo balorazioa da: zer egin dugun, nola joan den... Horrez gain, herritarrek proposamenak egiten dituzte, eta horrek asko laguntzen du. Urtero saiatzen gara festak eta ekitaldiak birformulatzen, eta horren seinale da, adibidez, aurten Pello eta Nikolasa txistua eta trikitia tarteatuz joango direla. Desberdintasun txiki horrekin, jende gehiagorengana iristeko asmoa dugu.

Zer nabarmenduko zenukete aurtengo egitarautik?

L.I.: Urteroko egitaraua dela esango nuke, eta lau egunez

ekitaldi ugari izango direla. Beti egongo da zerbait, berdin du goiza, arratsaldea edo gaua izan.

E.E.: Aurten zerbait nabarmen-tzekotan, agian eszenatoki gainean gazte ugari izango direla aipatuko nuke.

Dena prest izanik, ba al da kezkatzen zaituzten zerbait?

L.I.: Biok Txosna Batzordeko kide izanik, herri bazkariak kezkatzen gaituela esango nuke, bazkaria prestatzeko ardura hartu zuelako taldeak. Beldur pixka bat eragiten dit horrek. Azken urteetako festak ikusirik, ordea, dena ondo irten dadila nahi dugu, lasai eta ondo igaro ditzagula egun guztiak.

Herriko festarik maitatuenak dira sanikolasak. Baina zer lan du antolaketak?

E.E.: Festa Batzordea udalak deitzen duen taldea da, eta herriko hainbat eragilek eta norbanakok osatzen dute. Ekaineko San Pedro festak uztailean ixten ditugu, abuztuan oporrak egiten ditugu behar dugu-

lako, eta ondoren hasten gara sanikolasekin. Batzordean eragile edo talde desberdinen arteko koordinazioaz hitz egiten dugu, eta, gero, bakoitzak bere zeregin zehatza izaten du. Batzordetik kanpo ere badugu komunikazioa eragileen artean, eta udalarekin bilerak ere egiten ditugu. Ondo antolatuta izaten dugu, beraz, dena.

Festa Batzordeak aurtengo festen txupinazoan parte hartuko du.

L.I.: Orion sekula asmatu ez dugun formula da txupinazoarena. Kuriosoa da, baina gure herrian ez du garrantzi berezirik. Formula asko probatu izan dira; 2023. urtean, adibidez, sanpedroetan Pakak taldeak bota zuen txupinazoa. Askok kostatu zen, baina oso polita izan zen. Oraingoan kasualitatez iritsi zaigu proposamena eta baiezkoka eman dugu, baina horrek ez du esanahi berezirik.

E.E.: Pentsatu izan dugu txupinazoa orduz aldatzea, baina egunean zehar herritarrak la-

nean izaten dira, gauean adinekoak eta umeak goiz joaten dira lotara... Oraindik ondo lantzeko gaia da txupinazoarena.

Herritarrentzat mezurik?

L.I.: Txosnetan urtero izaten dugun borrokaren harira, norbanako bakoitzak ekar dezala edalontzia, eta, ondoren, etxera eraman dezala. Herria zaindu behar dugu, eta ekintza txiki horrek lagun dezake. Plazak plastikoz beteta amaitzen du, eta horrek ezin du horrela izan.



«Agertoki gainean gazte ugari izango direla nabarmenduko nuke»

«Norbanako bakoitzak ekar dezala edalontzia, eta, ondoren, etxera eraman dezala»

«Ezin da ukatu Pello eta Nikolasa erraldoien kalejirek jendetza mugitzen dutela»

Mezua garbia da: zaindu plaza, zaindu laguna eta txintxo ibili. **Behin festak amaitutakoan, ospatzen al duzue dena ondo atera izana?**

L.I.: Urte guztia igarotzen dugu sanikolasak ospatzeko zain, eta bazkari bat egitearen ideia beti irteten den arren, ez da inoiz iristen...

E.E.: Azken eguna jasotzeko eta garbitzeko gordetzen dugu, eta hori ere, egun ederra izaten da. Aprobetxatzen dugu.





«Egungo haurren artean oso Nikolas gutxi dago»

Iñaki Iturain Historiazalea

Guztia prest dute Orion San Nikolas festak ospatzeko. Lau eguneko egitarau oparoa dute herritarrek, baina, aurrera begira jarri aurretik, atzera begira jarri da Iñaki Iturain historiazalea. Sanikolasak nondik datozen azaldu eta jai horiek izan duten bilakaeraz hitz egin du.



Nondik datoz San Nikolas festak?

Badakigu San Nikolas jaiak herriaren izenetik datozela: Villa de San Nicolas de Orio izenetik; eta Sanpedroak, berriz, herriaren izenetik, herri arrantzalea da Orio, eta Bibliako San Pedro ere arrantzalea zen. Bada herriko bi festak batzen dituen ezaugarri bat: bietan santu bana dago oinarrian, eta biak oso lotuta egon dira, duela gutxi arte, Elizarekin. Bietan elizkizun asko egin izan dira. San Nikolas festetan, lehen egunean, meza nagusia izaten zen eta prozesioa kalean; bigarren, konfesioak elizan; eta hirugarrenean, Ama Birjina guztiz garbiaren egunean, jaunartzea.

Ezagutzen al da San Nikolas festen hasieraren inguruko daturik?

Nik aurkitu dudan aipamen zaharrena Antxon Agirre So-

rondoren Orio, oro hori liburu da, XVIII. mendekoa. Honela dio: "1788an kontzejuak Domingo Maguregi danbolin jolea kontratatu zuen", ondoren, haren lan egutegia zehazten du, danbolina noiz jo behar zuen, eta beste jaiegun askoren artean agertzen da San Nikolas eguna. Horrez gain, esan dezakegu sanikolasak XX. mendearen hasieratik etenik gabe ospatu direla, 1936tik 1939ra bitartean salbu, gerragatik.

Testigantzarik ere ez dago jaiak nola ospatzen ziren jakiteko?

Bai, badira, Eusko Ikaskuntzaren folklore sailak Euskal Herriko ohiturei buruz egingadako azterketa batean. 1983tik 1986ra bitartean egindako lan horretan hiru oriotar elkarrizketatu zituzten: Jose Mari Solaberrieta Lino, Jesus Garmendia eta Ramon Santamaria. Leku horiek datu asko eman zi-

tuzten: San Nikolas egunean, diana, meza nagusia eta prozesioa izaten zirela; prozesioan, aurretik apaizak joaten zirela, eta atzetik alkatea txistulariekin eta herriko jendea, udaleko ordezkari bat banderarekin, herrikoa edo Gipuzkoakoa, eta banderaren atzetik, giza-semeak, bi ilaratan, erdian San Nikolasen irudia zutela, eta atzetik emakumeak. Etxau-reak apaindu egiten zituzten prozesiorako. Meza nagusitik aterata, aureskua izaten zen plazan. Ondoren, Agur Jaunak abestu ondoren, udal agintariek, apaizak eta musikariek hamaiketako egiten zuten.

Elizkizunez haratago, zerbait berezirik egiten al zen?

Suziriak betidanik ezagutu izan ditugu Orion, eta buruhandiak, ezpata dantza, herri kirolak, sokamuturra, zaku karrerak, lokotx apustuak, oilasko biltzea... Ohitura hori berezia zen: gau osoa baserriz baserri oilasko biltzen eman ondoren, goizean plazan oilaskoak egurrezko oholetan sartzen zituzten, eta mutilak, begiak estalita, ezpatarekin lepoa moztan ibiltzen zitzaizkien oilaskoei.

Zertan aldatu dira festak?

Orain Elizak ez du garrantzirik festetan; meza egiten da,



EGIN ZURE ERRESERBA
625 70 08 98
ZENBAKIRA DEITUTA



Olaskoegi auzoa, 36 · AIA-ORIO · 625 70 08 98

Ondo pasa
jaiak!



Herritarrak prozesioan 1960ko San Nikolas egunean. UTZITAKOA

udaleko eta arrantzaleen kofradiako ordezkariak joaten dira meza nagusira, modu instituzionalean. Garai batean, 23:00etan serenoa lanean hasten zen: tabernak hustu eta jendea etxeratzen. Gaur egun gazte askok eta askok eguna



«1960ko eta 70eko hamarkadetan, azaroaren hasieran arrantzaleen jaia ospatzen zen»

«Garai batean, 23:00etan serenoa lanean hasten zen: tabernak hustu eta jendea etxeratzen»

argitu arte luzatzen dute festa. Are gehiago, orain festetako programak berak sustatzen du gaupasa egitea, eguna argituta gaupaseroen argazkia ateratzeko proposamenarekin. Eta garai batean baino askoz jende gehiago etortzen da kanpotik. **Kanpotik jende asko etortzen dela diozu. Inguruko herrietan beste festarik ez da izaten data horietan, eta horrek egiten al ditu berezi sanikolasak?** Ez dago Oriokoei itzala egin

diezaiekeen beste jairik, eta hori dela eta, sekulako gazte pila etortzen da gure herrira. Gaur egun gazteek badute autoa eta gaupasa egitera etortzen dira. Horrek arazoak ere ekarri izan ditu urte batzuetan. Gaur egun, gainera, gazte gehienek tabernetako musikarekin egiten dute festa, eta batzuetan plazan jotzen duten taldeek ia ikuslerik ez dute izaten.

Orioko herrian eta inguruko auzoetan hamaika festa izan dira. Orio festazalea izan da eta da?

Garai batean, 1960ko eta 70eko hamarkadetan, azaroaren hasieran arrantzaleen jaia ospatzen zen, arrantzaleen kofradiak eta udalak antolatuta; garai hartan urrian bukatzen zuten kostera, eta festa Santu Guztien Egunaren inguruan egiten zuten. Gero, Afrika aldera joanez luzatu zuten arrantza sasoia, eta festak bukaera ezagutu zuen. Azaroaren 11n sanmartinak izaten dira Ortzai kan, garai batean Lizargate baserrian. Eta abenduaren 6an, San Nikolas. Eta urtea ondo bukatzeko, Gabonak. Borobiltzeko, San Joan bezperan ere festa izaten zen, San Juan Elizpe elkarteak antolatuta. Orion ezin ahaztu arraunak utzi dituen festa egunak; sustrai luzea eta sakona duen festa da banderen bedeinkazioa. Ez du data fin-



Orioko musika banda, 1944an. UTZITAKOA

korik, Kontxako estropadan bandera irabazitako urteetan ospatzen da, eta udazkenean izaten da.

Gaur egun, ordea, sanikolasak eta sanpedroak mantentzen dira. Zergatik izan daitekeela uste duzu?

Lehenengo eta behin, horiek direlako herriko jai ofizialak, udalak bere aurrekontu eta baliabideekin antolatzen dituenak. Gero, Nikolas izena-

ren presentzia dago. Nik dakidala, Orioko ereserki ofizialik ez dago, baina Patxi Danbolinek asmatutako *Orioko mar-txa* badugu, eta urteetan San Nikolas festen hasieran jo izan du txarangak. San Nikolas, Orion, herriaren izenean dago: Villarreal de San Nicolas de Bari de Orio. Baina beste gauza askotan ere bai: San Nikolas eliza, arrantzaleen kofradia, bapora bat, karkara bat, mojen

hautzaindegia, txurro denda bat ere izan zen... eta ia inportanteena: traineruak ere *San Nikolas* izena du. Jai nagusiak ere bai. Eta azken urteotan festetan kalean gora eta behe-rra buruhandiekin dabiltzan bi erraldoiak Nikolasa eta Pello dira. Aldiz, beharbada herrian Nikolasen betekada dagoelako izango da, baina egungo haurren artean oso Nikolas gutxi dago.

2025 San NIKOLAS FESTAK

Gozatu eta ondo pasa!!

Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16
Orio

www.zaragueta.eus

**8****San Nikolas jaiak**Astelehena, 2025eko abenduaren 1a **GUKA**

Santio erreka 29, Aia
943-12 51 30
segaerretegia@gmail.com

arkaitz taberna ... urio ...

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Ondo pasa festak!

abeslari kalea 6 - 943-83 16 57

Gabon
TABERNA

ONDO PASA JIAKI!

SUKALDEA IREKITA
Pintxoak / Plater konbinatuak / Ogitartekoak

EUSKO GUDARIEN KALEA, 7 - 943-83 06 09

SU KIA
TABERNA - JATETXEA

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Ollaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)

ondo pasa jaiak!

Abaromendi 38, behe 1
ORIO - 943-89 21 29

ATEAK / ZOKALOAK / ARMAIRUAK NEURRIRA

Joseba
ARROZTEGIA

M.: 687 683 427
josebaarotza@gmail.com

LEIHOAK / ESKAILERAK / AROZTEGIA OROKORREAN

ondo pasa festetan!



Orioko txosnak, iazko sanikolasetan.

Txosna Batzordea, festa eredugarri baten alde lanean

Gaztetxeak, Pakak eta Orioko Sarek osatzen dute Txosna Batzordea, eta abenduaren 7ko herri bazkaria prestatzeko ardura hartu du taldeak. Boluntario lana izango dela aurreratu dute eta, beraz, ez dute dirurik jasoko.

Orioko txosnagunea Herriko Plazan kokatzen dute festetan, eta espazio oso mugatua izanik -txosna bat edo bi soilik sartzen dira-, azken urteetan udalak Txosna Batzordearen esku utzi du haren kudeaketa. Txosna Batzordea Gaztetxeak, Pakak eta Orioko Sarek osatzen dute, eta txosnagunean lortzen duten dirua beraientzat izaten

da. Gainera, jaiak herritik eta herriarentzat direla sinesten dute, eta ardatz horri jarraituz, Festa Batzordean ere parte hartzen dute Txosna Batzordekoek. Aurten, berrikuntza batzuk dituzte oriotarrentzat.

Lehendabiziko berrikuntza herri bazkariarekin lotutakoa izango da; izan ere, bazkaria prestatzeko ardura hartu du taldeak. "Bertakoaren aldeko apustua egin nahi dugu, eta herri bazkarirako catering zerbitzu bat ekartzea baino, nahia-

go izan dugu gure gain hartu lana. Baina garbi utzi dugu boluntario lana dela gurea, eta beraz, ez dugula dirurik jasoko. Duela urte batzuk San Nikolas festetako herri bazkaria hainbat eragileren esku egoten zen, baina aurten, gure artean hitz egin ondoren, motibatuta geundela ohartu ginen eta ardura geure gain hartzea erabaki genuen", agertu du Txosna Batzordeko kide Idoi Berasaluzek.

Abenduaren 7ko 14:30ean,



Edalontziak botatzeko erabiliko dituzten ontziak.

presa batek ematen duen zerbitzua eskainiko".

Edalontzien arazoa

Bigarren berrikuntza txosnetako edalontziena izango da. Azken urteetan izan duten arazoari itzulita eman nahi diote. "Izan ere, Orion, dirudienez, ez gara gai edalontziak berre-rabiltzeko, eta urtero-urtero plastikozko 2.000 edalontzi berrerabilgarri erosi arren, plazako lurrean amaitzen dute". Aurtengo beste saiakera bat egingo dutela iragarri dute: ez dute edalontzia kobratuko eta tra-goaren trukean emango dute edalontzia, baina bi aukera eskainiko dizkiote erabiltzai-leari; batetik, txosnan bertan uztea, eta, bestetik, zakarrontzi berezi batzuk jarriko dituzte plazan, edalontziak bertara bota ahal izateko. "Saskibaloi-ko saskien itxura izango dute, altueran egongo dira, eta herri-tarrek jolasteko aukera izango dute. Ea horrela plaza plastikoz beteta uztea saihesten dugun denon artean. Herriak eta ingurugiroak merezi dute".

Txosnagunean ere izango da bestelako berrikuntzarik. Azken urteetan bezala, sukaldea izango dute txosnetan, eta bertan afaltzeko aukera eskainiko dute egunero. Astelehenean, aldiz, bazkaria ere bertan eginge-ko aukera izango dute herri-tarrek: ahuntz saltsa, ardiki axoa, etxeko kroketa, patatak bi saltsarekin eta solomo eta saltxitxa ogitartekoak izango dira. Gainera, bertakoa lehene-tsiz, txosnetan eskainiko duten jateko guztia herrian bertan erosi dutela aurreratu dute, eta edarien artean, berriz, Euskola freskagarria eta Zarauzko ber-muta izango dituzte.

Haurrei zuzendutako ekital-

diak ere antolatu ditu Txosna Batzordeak. Abenduaren 8an haurrentzako lantegiak izango dira plazan, 11:00etan, eta bertan, igelaz eta tokaz gain, Euskal Herriko jostailuen inguruko jolasak izango dira.

Ateak zabalik

Txosna Batzordeak festa eredu-garri baten alde lanean jarraitzeko apustua egin duela garbi ikusi ahalko da aurtengo festetan. Beharrezkoa duten babes ekonomikoaz gain, Gaztetxeak, Pakak eta Orioko Sarek benetan sinesten dute "bade-la beste festa eredu bat, beste lan egiteko modu bat".

Arrakasta hitzaren esanahiari itzulita eman nahi diote:

Abenduaren 8an haurrentzako lantegiak izango dira plazan, 11:00etan hasita

Sukaldea izango da txosnetan, eta bertan afaltzeko aukera eskainiko dute egunero

"Guretzat, kalitatea garrantzitsuagoa da kantitatea edo kopurua baino. Horregatik aldatu nahi dugu ikuspegia: jakiak nondik datozen zaindu, hondakinen kudeaketaz arduratu, jaia herritik eta herriarentzat izan dadila... Hiru eragileok benetan sinesten dugu horretan, eta edozein herritarrek gure ikuspuntuarekin bat egingen badu, ongietorria izango da taldera".

Kepa Loidi
harategia-antzerkia

24 orduz harategi banagailua

Pelotari kalea, 1 • Orio • 943-83 25 65
www.kepaloidi.com • info@kepaloidi.com

Orio
OPTIKA

Herriko plaza 3, Orio
943-13 05 82 • 688 62 63 66
opticaorio@gmail.com

Col. S. 156

Portu
Enrategia - Intereza

Kazolitak, baserriko oilaskoa, parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g • AIA
943-89 44 34

edaritegia

Antilla jotetsua

Ondo pasa festak!

Abeslari kalea, 2
ORIO
943-50 70 98

- Menuak
- Plater konbinatuak
- Errazioak
- Ogitartekoak

LEIHOEN INSTALAKUNTZA

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Eusko gudari, 7
20810 ORIO (Gipuzkoa)
www.sagastileihok.com

Tel.: 943 13 00 77
sagasti@sagastileihok.com

beraz, babarrun jana eskainiko dute Karela kiroldegian izango den herri bazkarian. Duela urte batzuetako ideia bueltatzeko asmoz, bertako produktuak eta elikagai beganoak prestatuko dituztela aurreratu dute kideek, garai-ko produktuari ere bere lekua eskainiz.

Ez da babarrunak prestatuko dituzten lehen aldia, garai batean ere babarrunak izaten baitziren herri bazkarian. Txosna Batzordeko Egoitz Eizagirrenaren amaren laguntza izaten zuten orduan, eta garai bateko "ikas-keta" horiek gogoan, aurtengo errazagoa egingo zaiela aitortu dute.

Hori bai, bazkarirako izena ematen dutenek ere lan pixka bat egin beharko dute: "Taldea bakoitzak bere arduraduna edo arduradunak izango ditu, eta horiek izango dira goizean mahaia prestatu eta bazkarian zehar jatekoa eta edaria banatu beharko dituztenak. Herria lanean jartzeko modu bat da hori. Bi dira helburuak: batetik, gure lana errazagoa izatea, eta bestetik, ez dugu nahi herri-tarrek etorri, eseri eta jatea. Hori egiteko, hobe dute jatetxe batera joatea. Berritro diogu: borondatezko lana izango da gurea, eta ez dugu catering en-

**10****San Nikolas jaiak**Astelehena, 2025eko abenduaren 1a **GUKA**

Jai baten aldaerak

Abendua festaz eta ekitaldiz beteta iristen da Oriora, San Nikolas jaiei esker. Baina urtez urte, izan ditu hainbat aldaera. Ezagutu nahi?

Orioko San Nikolas jaiak herriko festarik zaharrenetakoak dira, eta urteetan zehar hainbat aldaketa eta berrikuntza izan dituzte. Hasiera batean izaera erlijiosoagoa eta xumeagoa zuten arren, denborarekin herri giroko ekitaldiek, kirol probek eta kultur jarduerak hartu dute protagonismoa, jaiak herriar guztientzako topagune bihurtuz.

Azken urteetan, musika eskaintza zabalagoa, haurrentzako ekintzak, gastronomiari loturiko jarduerak eta formatu berriak gehitu dituzte egitaraura, jaiak garai berrietara egokituz. Horrela, tradizioa eta berrikuntza uztartzen dituzte sanikolasetan.

Aldaketak irudietan

1. Banderen azken bedein-pakena 2022. urtean egin zuten. Aurten, berriz Kontxako bandera irabazita, 70 bandera bedeinkatuko dituzte abenduaren 8an Bariko San Nikolas parrokiari. Bazkaria ere egingo da Karella kiroldegian, ospakizunetan parte hartu nahi duten zaleekin.
2. Gaupaseroen argazkia. 2011n hasi zuten tradizioari jarraipena eman diote azken urteetan, eta aurtengo egitarau ofizialean ere jaso dute hitzordua: abenduaren 8an, 06:00etan aterako dute talde argazkia. Tokia ez dute adierazi, baina ondoko argazkiari erreparatuta, ez dago misterio handirik.
3. Abenduaren hasierako eguraldia iragartzea ez da erraza. Iaz hainbat ekitaldi lekuz aldatu behar izan zituzten festetan bota zituen euri zaparrada mardulengatik. Herriko Plazako jarduera batzuk kiroldegira, eta beste batzuk frontoira pasatu zituzten. Aurten, frontoirik ez da izango...
4. Errespetuz ospatu. Tamalez, festetan ere izaten dira jarre- eta gertaera onartezinak. Zorionez, azken urteetan horien aurrean erantzun irmoa eman dute herriarrek. Iaz, elkarretaratze jendetsua egin zuten festen erdian.
5. Festan, baina sasoiko. Kamel Ziani krosa 2017an antolatu zuten aurreneko herriko txikienentzat. Ordutik probak sanikolasetan data finkoa izan duen arren, aurten aste batzuk aurreratuta jokatu dute.





Jarri zure
saltokia eta produktuak
gure webgunean eta
zabaldurik





ondo pasa
jaiak!



Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17





12

San Nikolas jaiak

Astelehena, 2025eko abenduaren 1a **GUKA**

AGENDA

Abenduak 5, ostirala

San Nikolas bezpera

10:30. Jubilatuen hamaiketa-koa, Zaharren Babeslekuan.
18:30. Kalejira Pello eta Nikola-sa erraldoiekin, buruhandiekin eta Danbolin musika eta dantza eskolako txistulariekin.
19:00. Ondoezik elektrotxaranga.
20:00. Festen hasierako txupinazoa eta txosnen irekiera.
20:15. Ondoezik elektrotxaranga, plazatik.
20:15. Laprast taldea, plazan.
23:00. Laprast taldearen erro-meria, plazan.
Ondoren, Xanta DJaren emanaldia, plazan.

Abenduak 6, larunbata

San Nikolas eguna

09:00. 3x3 saskibaloi festa, Karelan.
11:00. Haur eta gaztetxoentzat jolasak, ikastolako pergolan.
11:00. Meza nagusia elizan, Sa-latxo abesbatzak kantatuta.
12:30. Dantzari helduen dantza sueltoko txapelketa, plazan.
17:00. Kalejira Pello eta Nikola-sa erraldoiekin, buruhandiekin eta Danbolin musika eta dantza eskolako trikitilariekin.



lazko txupinazoaren une bat.

18:00. Danbolin musika eta dantza eskolako bandaren kontzertua, plazan.
19:00. Patata tortilla lehiaketa LH6-tik DBH4-ra bitarteko gaztetxoentzat, ikastolako pergolan.
20:00. Punttu Kakotx elektrotxaranga, Herriko Plazan.
22:30. Bertso saioa Karela kiroldegian. Bertsolariak honako hauek izango dira: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Aitor Bizkarra, Nerea Elustondo eta Xabat Illarregi.

23:00etatik 04:00etara. Musika emanaldiak, plazan: Ganibet, Aimarzz, Makeda DJa eta Denz DJa.

Abenduak 7, igandea

San Nikolas bigarren

11:00. Gora bihotzak umeentzat ikuskizuna, plazan.
12:30. Kantu salda poteo musikatua.
14:30. Herri bazkaria, Karelan.
18:00. Herriko txaranga, Karelana.

18:30. Kalejira Pello eta Nikola-sa erraldoiekin, buruhandiekin eta herriko txarangarekin.
22:00etatik 05:00etara. Emanaldiak, plazan: Zinez, Marte Lasarte, Bad Sound System, Troti DJa eta La Fulana DJa.

Abenduak 8, astelehena

San Nikolas hirugarrena

06:00. Gaupaseroen argazkia.
11:00. Euskal Herriko jostailuen inguruko lantegia eta jolasak, plazan. Jarraian, bazkaria.

12:00. Kalejira, *Euskal Herriko abestiak* kantujiraren eskutik.
13:00. Orioko arraun elkartearen banderen bedeinkapena eta ondoren, bazkaria.
16:00. Herri kirolak haurrentzat eta gazteentzat, plazan, Joseba Ostolaza harri eskolaren eskutik.
17:00. Kalejira Pello eta Nikola-sa erraldoiekin eta trikitilariekin.
18:30. Talo jana, plazan.
19:30. Muxutruk taldearen kontzertua, plazan.

NIK
hik, hark, denok
GUKA EGITEN DUGU

Jon Alkain
Moda disenatzailea / Dantzaria



ZUK ERE
EGIN GUKA
egin bazkide